



Usurbilgo Udala



2015EKO IRAILAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Irene Garcia Palacios-ek.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko irailaren 10ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

Alkateak ezohiko pleno hau deitu dela azaldu du bigarren puntuak, kreditu aldaketei dagokienak, presa handia duelako.

**1.- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ESKAINTZEKO ESKUMENA ESKUORDE-
TZEKO EUSKO JAURLARITZAREN AKORDIO PROPOSAMENA ONARTZEA.**



Usurbilgo Udala



Alaitz Aizpuruak hitza hartu du eta gaiari buruzko azalpenak eman ditu.

Puntu hau nondik nora zetorren batzordean azaldu zela esan du; hala ere, azalpenak berriz eman ditu plenoan.

Hasteko adierazi du Lanbide Hastapenak jada ibilbide bat baduela Usurbilen.

2014ean 127/2014 Errege Dekretua argitaratu zela dio eta horren baitan aurreikusten zela 2014-15 ikasturtea trantsiziokoa izango zela eta 2015-16 ikasturtean lehenengo maila egin duten eta bigarren mailan egongo diren horiei titulua ezingo diela eman Lanbide Hastapeneko linea horrek eta Oinarrizko Heziketara pasa beharko litzatekeela. Hau da, lehenengo urtean lehenengo maila eman zutenak aurten titulua jaso ahal izateko Oinarrizko Lanbide Heziketara pasa beharko luketela. Era berean, orain arte Lanbide Heziketa zena bere horretan Oinarrizko Lanbide Heziketaren barruan sartzen dutela eta horrek esan nahi duela araututako hezkuntzaren barruan sartzen dela. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren eskumena den hori Udalak eskatu egin behar duela dio eta eskuordetze hori egiteko hitzarmen-proposamen bat dela hau zehaztu du. Beraz, gaur onartzea proposatzen dena eskuordetze hori izango litzatekeela azpimarratu du.

Usurbilgo Udalak maiatzean eskuordetze horren eskaera egin zuela eta uztailean Eusko Jaurlaritzak hitzarmen-proposamena egin diela zehaztu du, orain onartzea proposatzen dena.

Hezkuntza teknikariak, idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak egin dituztela esan du.

Eskuordetza bat hartzeko derrigorrezkoa dela esan du batik bat eskumen hori 100%ean finantzatuta egotea. Hitzarmenean jasotzen dela aipatu du ze kontzeptu diren finantzatzen direnak, hala nola, irakaslegoaren gastuak, irakasleak ez diren gastuak, funtzionamendu eta mantenu gastuak eta inbertsioen birjartzeak.

Hitzarmenaren iraupena 2020ra artekoa dela adierazi du eta zenbateko diru-laguntza jasoko den urtez urte zehazten dela adierazi du.

Lehen aipatutako txostenetan kalkuluak egin direla esan du orain arte dituzten zenbakiak urte horietara trasladatuz 100%ean finantzatuak izango ote ginatekeen edo ez jakiteko, hala ere, zehaztu du badirela gastu batzuk zailak direnak kontenplazten eta aurreikuspenen baitan egindako kalkuluak direla. Hau horrela, zati handiena, pertsonal gastuena eta baita inbertsio eta amortizazioak ere, 100%ean finantzatuak izango direla konprobatu dela adierazi du.

Gaineratu du finantziazioa orain artekoa baino zertxobait altuagoa izango dela.

Oinarrizkoa deritzotela esan du hemendik aurrera Oinarrizko Heziketa izango dena, eskumen hori udaletxeak izatea eta gertutasun horrekin eta gaur egun arte izan dituzten hezitzaile, irakasle eta pertsonen jarraipen hori egitea.



Usurbilgo Udala



Halaber, kontutan hartu behar dela dio ohiko sistemak kanpo utzi dituen ikasleak direla eta batzordean ikusi ahal izan zutela dio oso emaitza txukunak lortzen direla.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea zenbat ikasle dauden.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio Usurbilen bi lerro ematen direla, batetik, ile-apaindegikoa eta, bestetik, sukaldaritza eta zerbitzaritza.

Kurtso bakoitzean gutxi gorabehera 14-15 ikasle gaudela aipatu du, guztira 60 inguru.

Irakasle, koodinatzaile eta hezitzaileak 9 direla gaineratu du.

Batzarkideek, Hezkuntza eta Garapen Sailaren irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“AURREKARIAK:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtetan arautu eta bultzatu ditu hasieran Lanbide Hastapen bezala ezagunak ziren ikastaroak eta 2008 geroztik Hasierako Lanbide Prestakuntza programak.

Estatuak indarrean jarritako hezkuntzako antolamendu berriak HLPPak desager araziko ditu, eta 2015-16 ikasturtean, Oinarrizko Lanbide Heziketa programa jarriko da abian.

2014-15 ikasturtean lehenengo mailak Prestakuntza Integratuko Programan (PIIP) bilakatu ziren, Euskadin berezko Oinarrizko LH garatzeko behar adina denbora izateko. Aurten PIPP programa egin duten ikasleek Oinarrizko Lanbide Heziketako bigarren ikasturtera igaroko dira.

Oinarrizko LHri buruzko otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren baitan Lanbide Heziketa eskaintzak jasan dituen eta aurrerantzean jasango dituen aldaketak jaso ditu. Aipatu dekretuaren lehen xedapen iragankorraren arabera, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan hezkuntza administrazioek Oinarrizko LHko lehenengo ikasturtea tokiko korporazioek eskaintzea baimendu ahalko dutela jasotzen da, betiere, eskainiko dituzten Oinarrizko LH zikloekin bat datozen profil profesionalen HLPPak (Hasierako Lanbide-prestakuntza Programak) eskaini badituzte; eta ondorioztatzen da tokiko korporazioek ez luketela baimenik izango Oinarrizko LHren bigarren ikasturtea eskaintzeko, baldin eta ez badute Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saileko dagokion baimenik. Eta 2016-2017 ikasturteetik aurrera, Oinarrizko LH ikasketak hezkuntza administrazioak behar bezala baimendutako ikastetxeetan bakarrik eskainiko dira.

Finantziarioari dagokionez, tokiko korporazioei dagokionez ezingo dela itunen bidez gauzatu adierazten du idatziak, 2/2006 legeak (LOE) eta Euskal Eskola Publikoaren



Usurbilgo Udala



legeak ikastetxe publikotzat baititu hauek, eta gaineratzen du gaur egun tokiko korporazioek ez dutela hezkuntza jarduerarako eskumena.

Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bat egina onartu zuen Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, eskumenak eskuordetzea tokiko korporazio bakoitzak eskatu behar du, eta Usurbilgo Udalak eskaera hau bideratu zuen 2015eko maiatzaren 22an.

Gainera ile-apainketako laguntzaile eta sukaldeko/zerbitzuko langile, lehenengo eta bigarren mailak irakasteko administrazio baimenaren eskaera Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu zen egun berean.

Beste alde, 2015eko ekainaren 12an argitaratu zen, ekainaren 9ko 86/2015 Dekretua EAEko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

Hau guztia kontuan harturik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Oinarrizko LHko ikastaroak hala eskatzen duten tokiko korporazioen esku uztea baimenduko duen dokumentua prestatu du, 2015eko uztailaren 28an e-mailez alkateari iritsi zaiona. Udalerriek Oinarrizko LHko zikloak eman ahal izateko eskumenaren eskuordetzerako akordio proposamena da hau, 2015eko uztailaren 27an ospatutako Gobernu kontseiluaren bilkuran adostutakoa.

Eskumenaren eskuordetzea gauzatu ahal izateko interesatutako Udalerriek onartu beharko dute, beti ere baldintzatua, Ikastetxeetako Zuzendaritzak ikastetxeek baldintzak betetzen dituztela baieztatu eta baimena ematera.

Hala ere 2015-16 ikasturterako behin betiko matrikulazioa egiteko epea bukatuta, Usurbilen 4 taldeak osatu dira, lehenengo eta bigarren mailan aipaturiko lanbideetan: ile-apainketa laguntzaile eta Sukaldari-zerbitzari.

Beraz, EAE-n Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Sailak arautu eta bultzatuko dituen Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastaroetan tokiko korporazioak baimenduko dituzte ikasketa hauek eman ahal izateko betiere, eskainiko dituzten Oinarrizko LH zikloekin bat datozen profil profesionalen HLPPak (Hasierako Lanbide-prestakuntza Programak) eskaini badituzte.

Honela, HLPP programak Oinarrizko Lanbide Heziketa programan bihurtzeko, Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzak proposaturiko eskumenaren eskuordetzeko akordio proposamena onartu behar du.

ONARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ESKAINTZEKO ESKUMENA ESKUORDETZEKO AKORDIO PROPOSAMENA

Aipaturiko akordio proposamenean, besteren artean ,ondorengo hauek zehazten dira:



Usurbilgo Udala



Hezkuntza, Hizkuntz politika eta kultura Sailak eskuordetzen den zerbitzuaren guztizko kostea finantzatuko du, beti ere, ikasturte eta espezialitate bakoitzean ikasleen taldea osatzen bada.

Zerbitzuaren gastua baloratzeko ondorengo arau hauek erabiliko dira:

-1.-Izaera hauetako gastuak onartzen dira:

- Irakaslegoaren gastuak
- Irakasleak ez direnen gastuak
- Funtzionamendu eta mantenu gastuak
- Inbertsioen birjartzeak

Inolaz ere udalerriek ezingo dute bere gain hartu, Hezkuntza Sailak transferitutako urteroko aurrekontuko diru-hornidura baino handiagoak diren gastu konpromisoak ez da ere beste gastu obligazioak.

Akordioaren eranskinean zehazten dira Udaleko baimendutako talde-zikloak eta zenbatekoak. Usurbilgo Udalari 2 talde lehenengo mailakoak eta beste bi bigarrenengoak baimentzen zaizkio, ile-apainketa eta sukaldaritza lanbideetan.

Usurbilgo udalari ondorengo aurrekontu hau onartzen zaio 2015etik 2020ra:

URTEA	TALDE KOPURUA		TALDE KOPURUA		DIRU-LAGUNTZA GUZTIRA
	1. OLH	Diru-laguntza	2.OLH	Diru-laguntza	
2015	2	56.389,13	2	43.838,75	100.227,87
2016	2	172.550,73	2	134.146,56	306.697,29
2017	2	176.001,74	2	136.829,50	312.831,24
2018	2	179.521,78	2	139.566,09	319.087,86
2019	2	183.112,21	2	142.357,41	325.469,62
2020	2	186.774,46	2	145.204,56	331.979,01

Honela diru-laguntza honi urte batetik bestera %2-ko igoera ezartzen zaio

Diru-laguntza urteka zehazten denez, ikasturterako izango den diru-laguntza zehaztu behar da eta Usurbilgo Udalaren kasuan **2015/16rako izango genukeena, 304.692,73 € dira.**

eskumenaren eskuordetzeak 2015-16 ikasturte hasieratik izango du efektu, eta 5 ikasturtez luzatuko da. Berau gauzatzeko, udalerriko idazkari edo kontu-hartzaileak eskumenaren eskuordetzearen onarpenaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.



Usurbilgo Udala



Beraz, guzti hau kontutan harturik ezin bestekoa da Usurbilgo ikastetxeak dituen gastuen azterketa egitea beti ere finantzatu daitezkeen gastuen izaera kontutan hartuz, hau da, irakasleen gastuak, irakasleek ez direnen gastuak, funtzionamendu eta mantenu gastuak, eta inbertsioen birjartzeak.

Azterketa egiteko, alde batetik irakasleen kostea atera da, 2015-16 ikasturterako onartzen zaien kontratuaren iraupen eta lan-jarduna kontutan hartuz, eta bestetik, funtzionamendu eta mantenu gastuak eta inbertsioak birjartzeak zehazteko, aurreko ikasturtean 2014-15ean izandako gastuaren arabera kalkulatu da. Koste hauei %2-a ezarri zaie datorren ikasturteko igoerak aurreikusiz.

Hauk dira aipaturiko azterketatik ateratako datuak:

1.-PERTSONALGOA	SOLDATA	GIZARTE ASEGURUA	ELKARKIDETZA	GUZTIRA
IRAKASLEAK (2015-2016)	183.975,82 €	58.674,41 €	1.384,60 €	244.034,83 €
GARBITZAILEA (2014-2015eko gastua)	9.399,98 €	2.613,19 €		12.013,16 €
GUZTIRA 1				256.047,99 €

	SUKALDARITZA 1	SUKALDARITZA 2	ILE-APAINKETA 1	ILEAPAINKETA 2	OROKORRAK	GUZTIRA
2.-FUNTZION./MANTEN.(14-15 gastua)	4.941,72 €	4.143,23 €	719,85 €	1.020,88 €	21.703,65 €	32.529,33 €
3.-INBERTSIOAK BIRJARTZEA(14-15 gastua)					109,80 €	109,8
GUZTIRA 2-3						32.639,13 €

GUZTIRA 1-2-3	288.687,12 €
%2ko igoera	5.773,74 €
GUZTIRA IGOERAREKIN	294.460,86 €

Esan behar da kalkuluetan ez direla sartu sor daitezkeen beste gastu batzuk, langileen joan-etorriak, bajagatik ordezkapenetatik eratorritakoak, edo/ eta ekipamendu erosketarako aurre-ikusitakoak. Baina 2015/16rako, gastu mota hauetarako, aurreikuspen bat egin beharko litzateke. Ekipamendurako 2015eko Udal aurrekontuetan aurreikusitakoaren arabera ezarri da eta joan etorri gastuetarako berriz aurreko ikasturteko kostea kontutan hartuz.

Beste gastuen aurre-ikuspenak	
Ekipamendua	3.000,00 €
Joan – etorriak	500,00 €

Beraz, 2015/16rako izango genukeen diru-laguntzari, hau da, 304.692,73€-ri, aurretik aipaturiko gastuen aurreikuspenak kendu ezkerro langileen ordezkapenetarako erabilgarri geratuko litzatekeen zenbatekoa ondorengo hau litzateke:



Usurbilgo Udala



Langileen ordezkapenatarako	6.731,87 €
-----------------------------	------------

Azken aldagai honetan beharrak oso aldakorrak izan daitezke urte batetik bestera eta oso zaila egiten da berau aurreikustea.

Hala ere, esan behar da, diru-laguntza honek berma dezakeela %100ean zerbitzu honek duen kostea, kontutan harturik hainbat aldagai aldakorrak izan daitezkeela, hain zuzen ere, aipaturiko ordezkapenak, ekipamendu erosketak eta konponketak.

Beste alde, udal idazkariaren txostenean emandako ondorioetan hitzez hitz ondorengo hau jasotzen da:

“Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015eko uztailaren 27an egindako saioan hartutako erabakien artean jasotako ‘Propuesta de Acuerdo de delegación de competencia para impartir Ciclos Formativos de Formación Profesional Básica por parte de municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi’ deritzan akordioaren testuak Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Testu Bateratuaren (TAOL) (27/2013 Legeak, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoak, emandako aldaketak kontuan hartuta) 27. artikuluan jasotakoak eta bereziki Udal honek maiatzaren 20an Hizkuntza Politika eta Kultura saileko sailburuari helarazi zitzaion delegazio eskaeran azpimarratutako puntuak jasotzen ditu.

Hala ere, baldintza ekonomiko eta finantziarioari dagokion atalean, Kontuhartzaileak emandako txostena hartu beharko da kontuan, eta delegazio baldintzei dagokienean, eta horien zehazte/argitzeari dagokionez bereziki, Hezkuntza eta Garapen saileko Teknikariaren txostenean jasotako analisia kontuan hartu beharko da.

Delegazioa onartzeko prozedurari dagokionez, Udal Plenoari dagokio beste herri administrazio batzuek eskumenak eskuordetzea onartzea, TAOLeko 22.2.g. artikulua araberak. Onartze quorumari dagokionez TAOLeko 47.2.h artikulua korporazioaren kideen legezko kopuruaren aldeko botoen gehiengo osoz onartu beharreko gaien artean dago beste administrazio batzuek egindako eskuordetzak onartzea.”

Gainera, Udal kontu-hartzailearen txostenean ere akordio honen baldintza ekonomiko eta finantziarioak aztertu dira eta zerbitzuaren finantzaketa bermatzen dela ondorioztatzen da.

Guzti hau kontutan izanik, Hezkuntza eta Garapena batzordeak, 2015ko irailaren 3an egindako bilkuran, Xabier Agirre, Alaitz Aizpurua eta Miren Josune Estella-ren aldeko botoekin, eta Josune Urkola-ren abstentzioarekin, Udalbatza Plenoari egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilen Oinarrizko Lanbide Heziketa eskaintzeko Eusko Jaurlaritzaren eskumena eskuordetzeko akordio proposamena onartzea.



Usurbilgo Udala



BIGARRENA: Eskumenaren eskuordetzea 5 ikasturtetarako onartzea: 2015-16, 2016-17, 2017-18, 2018-19, 2019-20.

HIRUGARRENA: Akordio honen onarpenaren berri Eusko Jaurlaritzari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

2.- 5. KREDITU ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak erizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

5. Kreditu aldaketa hau inbertsioetako partida bat dela adierazi du. Ikastola eta Agerialde arteko kalea peatonalizatu eta azpiegiturak berritzeko 40.000 euroko aurreikuspena zegoela esan du eta proiektua ia bukatzeaz badago ere haserako proiektuari gauza gehiago gehitu zaizkionez ezin izan dela uda honetan bukatu. Beraz, ikasturtea hasteko ezin izanenez bukatu hurrengo urteko aurrekontuetan sartu eta hurrengo udaran egitea komenigarriagoa iruditu zaiela zehaztu du. Horren ordez tren geltokitik Atxega Jauregira doan paseoa konpontzea pentsatu dutela adierazi du. Hau guztia burutu ahal izateko dela kreditu aldaketa azaldu du.

Carlos Pérez-ek egin beharreko obrei buruz galdetu du eta Jone Urdanpilletak azalpenak eman dizkio. *“Es un suelo permeable y está compuesto de arena y cal hidráulica con unas fibras de vidrio. No admite un tráfico de vehículos pero es ideal para correr, pasear y andar con silla de ruedas.”*

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu da, hain zuzen, 5 zenbakiarekin identifikatua eta Usurbilgo Udalaren aurtengo Aurrekontuari eragiten diona.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola ikusi dugu eta, zehatzago, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiela.



Usurbilgo Udala



Arestian aipatutako Foru Arauak 29. 4 artikulua jasotzen duen eran, kreditu aldaketa hau onartzeko eskumena Udalbatzarrarena da, eta horregatik, Alkateak proposamena aurkeztu dio Ogasun Batzordeari eta bertan, 2015eko irailaren 7an izandako bilkuran, proposamena bozkatu eta onartu da gehiengoaren aldeko iritziarekin, EH Bilduren (Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta) eta PSE-EEren (Fermin Orue) aldeko botoekin, eta EAJren (Josune Urkola) abstentzioarekin.

Udalbatza Plenoak Ogasun Batzordearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA.- 2015eko Aurrekontuaren baitan ondoren zehazten den kreditu transferentzia behin betiko izaeraz onartzea:

Kreditu aldaketa: 5. espedientea (2015/30002)

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

Kontu-saila	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
1.7000.601.454.00.01	Urb: Alperroburu-Agerialde-Udarregi	40.000,00	40.000,00	0,00
GUZTIRA ...		40.000,00	40.000,00	0,00

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)

Kontu-saila	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.7000.601.459.00.01	Atxega Jauregia parkeko bidea eraberritzea	0,00	40.000,00	40.000,00
GUZTIRA ...		0,00	40.000,00	40.000,00

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontu-hartzaileari ematea.”

Bozketa egin denean, honako erabakia hartu da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisolli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia aho batez hartu da.

3.- UDAL TALDE POLITIKOEN ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK FINKATZEA.

Xabier Arregik adierazi du puntu hau plenora ekarri dutela ekainean egin zuten pleno hartan EAJren aldetik eskatu zitzaielako gai honi buruzko saio bat egin behar zela. Harrezkero elkarrekin hainbat bilera egin dituztela eta orain gai hau plenora ekartzen dutela esan du.

Jarraian, Alaitz Aizpuruak erizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Erizpenean jasotzen den moduan, batetik, 1.320 euro zinegotzi bakoitzeko eta urteko, eta talde bakoitzeko 4.800 euro. Bestetik, Pleno, Tokiko Gobernu Batzar eta Batzorde Informatzailetako bilkuretara etortzeagatik, dedikaziorik ez duen zinegotzi bakoitzak 50 euroko ordainsaria izango luke.

Fermin Orue-Echevarriak bere desadostasuna agertu du. Aipatu diren dietek %100ko igoera izan dutela eta aldiz lanpostuetan soldatak azken urteetan ez direla igo esan du. Horrelako igoera izatea ez zaiola batere ondo iruditzen adierazi du.

Udal langileen hitzarmena berritzea ere tokatuko dela urtarrila edo otsailean esan du, eta hauek soldaten igoera eskatzen dutenean ez dela posible erantzun beharko zaie eta hauek gogoraraziko dietela dio irailaren 10ean ze erabaki hartu zen plenoan.

Ikusten duen alde positibo bakarra legealdiko lehen akordioa lortu dela da.

Bere botoa aurkakoa izango dela adierazi du.

Alkateak azaldu du kasu honetan EH Bildu taldeak negoziazio prozesu bati ekin ziola EAJ taldearekin eta prozesu horretan alderdi bakoitzak berak egingo lukeena alde batetara utzi eta saiakera bat egin duela bestearen proposamenera hurbiltzeko. Hau ez zela beraien proposamena argitu du, baizik eta legealdiko adostasunetara jotzeko keinu inportante bat eta hona ekartzea baloratu zutela.

Bestalde, egia dela dio dieten kasuan igoera %100koa dela, baina udal honetan kobratzen diren dietak inguruko udaletakoak baino txikiagoak direla eta agian kopuru absolutetan igoera hori ez dela horrenbestekoa.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:



Usurbilgo Udala



“Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 eta 75.3 artikuluen arabera, Udalbatza Plenoari dagokio udal talde politikoen eta zinegotzien ordainsariak finkatzea.

Goian aipatutako guztia ikusirik, Alkateak proposamena luzatu dio Ogasun Batzordeari, eta honek, 2015eko irailaren bilkuran, proposamena bozkatu eta onartu du, EH Bilduren (Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta) eta EAJren (Josune Urkola) aldeko botoekin, eta PSE-Eeren (Fermin Orue) aurkako botoarekin.

Udalbatza Plenoak batzordearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Udal talde politikoei dagokien dotazio ekonomikoa onartzea.

Talde politikoa	Zinegotzi kopurua	Zinegotzi bakoitzeko	Zinegotzi variablea	Taldeko finkoa	Guztira
EH Bildu	8	1.320	1.320*8	4.800	15.360
EAJ	4	1.320	1.320*4	4.800	10.080
PSE-EE	1	1.320	1.320*1	4.800	6.120
	13				31.560

BIGARRENGOA.- Plenoko, Tokiko Gobernu Batzarreko eta Batzorde Informatzaileetako bilkuretara bertaratzeagatik, dedikaziorik ez duten zinegotzi bakoitzari dagokion ordainsaria 50 €tan finkatzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek eragina izango dute legealdi berriko Udalbatza eratu zenetik (ekainak 13).

LAUGARRENA.- Bigarren puntuan zehaztutako ordainsarien berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 7/1985 legearen 75.5 artikulua arabera.

BOSGARRENA.- Udal talde bakoitzari eta Kontu-hartzailetzari erabaki hauen berri ematea.”

Bozketa egin denean, honako erabakia hartu da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.



Usurbilgo Udala



4.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: SIRIA ETA BESTE HERRIALDE BATZUETA-KO ERREFUXIATUAK.

Alkateak adierazi du puntu hau inongo batzordean diktaminatu gabe datorrela eta has-teko gai-zerrendan sartzea berretsi behar dela.

Batzarkideek, puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak adierazi du adierazpen instituzional honen hasierako bertsioa EH Bilduren es-
kutik zabaldu zela beste alderdietara, baina jakinarazi zitzaiela dio proposamen irekia
zela eta ekarpenak jasotzeko prest zeudela.

Bi proposamen jaso dituztela zehaztu du, bata EAJk egindakoa eta bestea PSE-EEK
egindakoa. Azken honengandik jasotakoa ez dela aldaketa proposamen bat izan baizik
eta mozio bat, eta hau aztertuta gauza askotan ikusi dute, literaturan ez bada ere, esa-
nahian kasik bat zetoze la biak eta esaldi bat txertatuta PSE-EEren ekarpena gehitu zi-
tekeela.

Jarraian, Alaitz Aizpuruak bi aldaketak zeintzuk diren aipatu ditu.

Batetik, PSE-EEren proposamena, bigarren puntuan azpimarratuta dagoena gehitzea,
“... eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatzen diogu Espainiako Estatuari eta gai-
nerako Europako estatu kideetako...”.

Bestetik, EAJren proposamena, hirugarren puntuan hau gehitzea: “Erakunde bakoitzak
ezin du bere kabuz jokatu, baizik eta erakunde ezberdinek elkarlanean aritu behar dute
sortuko diren beharrei erantzun egokia emateko”.

Segidan adierazpenaren puntuak irakurri ditu.

Bi proposamenak kontutan hartuta, batzarkideek honako adierazpen instituzionala
onartu dute aho batez:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealitate geldiezina da azken urteotan,
ezberdintasun sozialen, krisi humanitario eta ekonomikoen eta Afrikako, Europako
Ekialdeko eta Ekialde Hurbileko gerra gero eta ugariagoen ondorioz.

Drama humanoa da, haien herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka pertsonen
heriotza eragiten duena. Hala ere, mundua lekuko isila da eta mendebaldeko
agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoak dira.



Usurbilgo Udala



Azken urteotan barne gerrek eta okupazio militarrek exodoak eragin dituzte Sirian, Iraken edo Afganistanen. Azkenaldian, horri beste errealitate bat gaineratu zaio, fanatikoa eta muturrekoa, Ekialde Hurbila ez ezik, Europako herrialdeak ere atentatu eta beldurra hedatzeko ekintzez kolpatu dituena.

Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinda, onartezina da Europar Batasunaren eta haren gobernuetako agintari politikoen isiltasun mingarria. Gatazkek eta giza eskubideen urraketak eragindako migrazio fluxu honi ezin zaio erantzun alanbre hesiez eta jazarpen militarraz, ezta bizirik jarraitzeko ihesi datozenei merkataritza kuotak ezarrita ere.

Antzeko egoeretan, Usurbilgo Udalak elkartasun aktiboa erakutsi eta justizia eskatu izan du; horixe egin zuen Balkanetako gerraren garaian eta horixe egiten du, oraindik ere, saharar herriarekin.

Honengatik guztiarengatik, Usurbilgo Udalbatza plenoak honako adierazpen instituzionala egin du:

1.- Usurbilgo Udalbatzak Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuen harreran aktiboki inplikatzeko konpromisoa adierazten du, baita konpromiso bera duten beste udal batzuekin lan egitekoa ere.

2.- Europar Batasunak erantzukizun garbia du errefuxiatuen exodoa eragin duen Ekialde Hurbilaren desorekatze egoeran. Horregatik, krisi humanitario honi modu aktiboan eta elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatzen diogu Espainiako Estatuari eta gainerako Europako estatu kideetako agintari eta gobernuari. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobeztatzen duten mafien biktima diren pertsonen hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzaten ere eskatu behar zaie.

3.- Usurbilgo Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari tragedia honen aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezaten eta haren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bidera ditzaten eskatzen die. Erakunde bakoitzak ezin du bere kabuz jokatu, baizik eta erakunde ezberdinak elkarlanean aritu behar dute, sortuko diren beharrei erantzun egokia emateko.

4.- Arestian aipatutako bi erakunde horiekin eta Euskal Herriko beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartzen du Usurbilgo Udalbatzak, errefuxiatu hauek hartzeko tokiko sare bat egituratzeko.”

Bozketa egin denean, honako erabakia hartu da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkateak adierazi du adierazpenak askotan hitz soiletan geratzen direla baina hemendik aurrera adierazpen honekin koherente izango bagara, derrigorrez pentsatu behar dugula nola egin aurrera. Udalak baduela Gizarte Zerbitzuetako sail bat eta sail horretako kideekin hitz egin beharko dela esan du gai hau nola bideratu eta noski beste erakundeekin ere hitz egin beharko dela gaineratu du.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.